

Getxo

EUROPAKO
MUGIKORTASUN
ASTEA

IRAILAK 16-22 SEPTIEMBRE 2022

SEMANA
EUROPEA
DE LA MOVILIDAD



Getxo
bizi ezazu

Ingurumena
Medio Ambiente

#MobilityWeek



www.getxo.eus/eu/medio-ambiente-movilidad/movilidad

Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatuko du Getxoko Udalak **irailaren 16tik 22ra**. Egun hauetan, mugikortasun aktiboaren, garraio publikoaren eta bidaiatzeko beste aukera garbi eta adimendun batzuen aldeko jokabide-aldaketak sustatzeko jarduerak antolatuko ditugu.

Aurtengo leloa **“Konexio hobeak”** izango da; alegia, pertsonen eta lekuen artean ezar daitezkeen sinergieiei buruzko aipamena. Asmo horrekin, Getxoko Udalak

hainbat jarduera diseinatu ditu; besteak beste, bizikletak elektrifikatzeko ikastaro bat, mendi-irteerak, bizikletak eta patinete elektrikoak probatzeko zirkuituak edo bizikletan ibiltzen ikasteko tailer bat.

Era berean, irailaren 18an, Europako ekimen honen jatorria den **Autorik Gabeko Eguna** ospatuko da. Data hori dela eta, umeentzako hainbat jarduera eta jolas antolatu ditugu Getxon, herriko elkarte eta klubekin elkarlanean.

**LARUNBATA
17**

**FADURAKO
APARKALEKUA**
10:00etatik
13:30era



IZEN-EMATEA

MENDI-IRTEERA IBILKI ELKARTEAREKIN

Mendi-irteera **Getxoko IBILKI mendizaleen elkarte inklusiboarekin**. Talde honek desgaitasunarekin, immigrazioarekin, emakumeen ahalduzuekin, kultura-aniztasunarekin, haurtzaroarekin eta etxerik gabeko pertsonekin lotutako gaiak lantzen ditu; gainera, hainbat herrialdetako mendizaletasun-proiektu inklusiboekin elkarlanean aritzen da.

**ASTEARTEA
20**

ESKOLETAKO PLAZA
18:00etatik
20:00etara



BILGAILU JASANGARRIAK EZAGUTZEKO ETA PROBATZEKO ZIRKUITUA

Patinete elektriko, *longboard*, *skate* eta –oro har– hiri-mugikortasunari buruzko trebetasun-zirkuitua. Konponketa eta mekanikari buruzko karpa bat egongo da zirkuitutik gertu. **Ibilgailu jasangarri batekin arazoren bat baduzu, ekar ezazu aditu talde batek hura konpontzen lagundu diezazun.**

**ASTEAZKENA
21**

ROMO KULTUR ETXEA
17:30etik
20:30era



IZEN-EMATEA

BIZIKLETAK ELEKTRIFIKATZEKO IKASTAROA

Ikastaro honetan elektrifikazio-kit bat instalatuko dugu bizikleta arrunt batean. Horrela, merkatuaren aukerak, beharrezko ezaugarriak eta eskuragarri dauden modelook ezagutuko ditugu; gainera, muntaia egiteko jakin beharrekoetan trebatuko gara.



IZEN EMATEAK: Telefonoz: **605 74 90 64** (lanorduetan). Posta elektronikoz: getxomovilidad@gmail.com, aukeratutako jarduera, izen-abizenak eta telefono-zenbakia adierazita. Jarduera guztiak doakoak dira.

MUGIKORTASUN ASTEKO JARDUERAK

OSTIRALA 16

TREBETASUN-ZIRKUITUA BIZIKLETAZ

18:00etatik 20:00etara - ESKOLETAKO PLAZA

Zatoz bizikletaz eta erakutsi zirkuituan bi gurpilen gainean duzun trebetasuna. Bizikletarik ez baduzu, bat utziko dizugu.



PROBATU BIZIKLETA ELEKTRIKO BAT

18:00etatik 20:00etara - ESKOLETAKO PLAZA

Oraindik ez zara bizikleta elektrikoan ibili? Bizikleta mota hau probatzeko eta haren abantailak ezagutzeko aukera eskaini nahi dizugu.

GAUEKO IRTEERA BIZIKLETAZ

21:30etik 23:30era - BIZKAIA ZUBIA

Gure itsasertzaz modu osasungarri eta jasangarrian gozatzeko familia-jarduera.



IZEN-EMATEA

LARUNBATA 17

MENDI-IRTEERA

10:00etatik 13:30era - FADURAKO APARKALEKUA

Ibilbide zirkularra Getxon zehar **ibilki** mendi taldearen eskutik. Abiapuntuan amaituko da.



IZEN-EMATEA



LORTU MOTXILA BAT

11:00etatik 12:00etara - AREETAN

12:30etik 13:30era - ALGORTAN

Motxilak* banatuko ditugu bizikletaz, irristailuz edo edozein ibilgailu jasangarri hurbiltzen diren pertsona guztien artean.

* Agortu arte.

ASTELEHENA 19 - ASTELEHENA 21

IKASI PEDALEI EKITEN

18:00etatik 19:00etara - EVARISTO TXURRUKA KAIA

Bizikletan ibiltzen erakutsiko dizugu! Helduei bizikletak utziko dizkiegu. Haurrek, berriz, 8 urtetik gorakoak izan beharko dute, eta haien tamainako bizikletak ekarri. Kaskoa nahitaezkoa izango da 16 urtetik beherakoentzat.

IZEN-EMATEA

ASTELEHENA 19

IBILKETA NORDIKOA (HIRIAN ZEHAR)

10:00etatik 12:30era - BIZKAIA ZUBIA PLAZA

Tailerra eta ibilketa nordikoa Getxon zehar. Ongizate-sentsazioa areagotzeaz gain, besoen eta hanken arteko koordinazioa hobetzen du kirol-jarduera honek.

IZEN-EMATEA

PARKOUR-AREN HASTAPENAK

18:00etatik 19:30era - ALGORTAKO GELTOKIA

Eraldatu hiri-espazioen erabilerak eta bihurtu Getxo mugarik gabeko jolas-zelai eta entrenamendu-eremu.



IZEN-EMATEA

ASTEARTEA 20

* IBILGAILU JASANGARRIAK PROBATZEKO ZIRKUITUA + MEKANIKA ETA KONPONKETARI BURUZKO AHOALKULARITZA-ZERBITZUA

18:00etatik 20:00etara - ESKOLETAKO PLAZA

"Longboard", "skate" eta patinete elektrikoetan* hiri-mugikortasuneko trebetasunak praktikatzeko zirkuitua. Zirkuituaren ondoan karpa bat egongo da, ibilgailu jasangarrien mekanikari eta konponketari buruzko aholkuak emango dituzten adituekin.

ASTEAZKENA 21

BIZIKLETAK ELEKTRIFIKATZEKO IKASTAROA

17:30etik 20:30era - ROMO KULTUR ETXEA

Elektrifikazio-kita muntatuko dugu bizikleta batean, merkatuan eskuragarri dauden aukerak eta horien ezaugarriak ezagutzen ditugun bitartean.



IZEN-EMATEA

OSTEGUNA 22

BIZIKLETEN OINARRIZKO MEKANIKA-IKASTAROA

18:00etatik 20:00etara - ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA

Bizikleta beti prest izateko behar duzun guztia erakutsiko dizugu.

IZEN-EMATEA

BIZIKLETA ELEKTRIKOAK PROBATZEKO ZIRKUITUA

18:00etara 20:00etara - ESKOLETAKO PLAZA

Bizikleta elektrikoan ibiltzea oso erraza eta eroso da. Zatoz eta proba ezazu! Trebetasun-zirkuitu txiki bat izango dugu.

IGANDEA 18 AUTORIK GABEKO EGUNA OSPATZEN

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

Telletxe kalea (Algorta) Kale Nagusia (Areetan)

Bi kaleak oinezkoentzat izango dira egun batez, eta hainbat jarduera egingo dira familia osoak primeran pasa dezan. Zatoz eta gozatu Getxo autorik gabe, antolatu ditugun jarduera guztiei esker.

Ohe elastikoak, kart eta minimotoen zirkuituak, skate-tailerra, mahai-tenisa... eta ezusteko beste jarduera ugari.

Jokoez gain, honako elkarte, GKE eta talde hauek bat egingo dute Autorik Gabeko Egunarekin hilaren 18an, igandean (mila esker ekimen honetan parte hartzeagatik):

- **3DLAN** (aniztasuna sustatzeko eta desgaitasuna duten pertsonen aldeko 3Dko inprimaketa)
- **AHIDA** (arreta gabeziaren nahasmendua eta hiperaktibitatea duten pertsonen elkarte)
- **ASEBIER** (Euskadiko gaixotasun arraroen elkarte: arantza bifidoa eta hidrozeftalia)
- **SAREKIDE** Getxo
- **APNABI** Autismo Bizkaia elkarte
- **GETXOKO GURUTZE GORRIA**
- Bizkaiko **ASPERGER** eta AEN ASPERTXU elkarte
- **Getxoko ERRITMIKA kluba** (gimnasia erritmikoa)
- **ASPANOVAS** Bizkaia (minbizia duten haur eta nerabeen elkarte)
- **Getxoko LOS CHOPOS** mahai-tenisa elkarte
- Zama-bizikletentzako zirkuitua, **CICLOS OLABARRIETA**

IBILGAILUEN ZIRKULAZIO ETENAK ALGORTAN ETA AREETAN. Irailaren 18an, igandea, 8:00etatik 20:00etara, ibilgailu pribatuen zirkulazioa eta aparkamendua mugatuta egongo da Algorta eta Areetako erdiguneetako hainbat kaletan. Garajeetatik ibilgailuak ateratzea bakarrik baimenduko da kale hauetan. Murrizketek ez dute eraginik izango garraio publikoan, ez Getxoko Udalaren alde zureko baimena duten establezimenduetako ibilgailuetan. Eskerak: ingurugiroa@getxo.eus. Mesedez, kendu ibilgailua aipatutako kaleetatik antolatutako jarduerak ez oztopatzeko. Garabiak gune hauetan aparkatuta dauden ibilgailuak kenduko ditu.

